

Gastu turistikoa %4,0 handitu da Euskal AEn eta BPGren %6,1 izan da 2018an

Gipuzkoan BPGren %7,6 izan da, Bizkaian %5,4 eta Araban %5,1

Euskal AEn 2018an egindako gastu turistiko osoa %4,0 hazi zen aurreko urtearekin alderatuta, eta urte horretako BPGren %6,1 izan zen, 2017an bezalaxe, Eustatek egindako datuen arabera. Kopuru absolutuetan, gastua 2017an 4.474 milioitik 2018an 4.651 milioira pasatu zen.

Turismo-gastuaren osagaiei erreparatuz gero, Euskal AEko gastuaren igoera hori *Turismo hartzailean* gertatu da batez ere, %6,8 igo baita –hau da, atzerritik edo Estatuko gainerako tokietatik datozen turistek eta txangozaleek egiten duten gastuan–, eta, neurri txikiagoan, *Turismo-gastuaren beste osagai batzuetan* (+%0,8). Halatan, 2018an turismo hartzailearen partaidetza gastuaren osotasunean %54,4ra iritsi da, 2017an baino 1,4 puntu gehiago.


Turismoaren ekarpena euskal ekonomiara urtez urte. Balio absolutua eta portzentajea BPGren gainean (m.p.). Uneko prezioak. 2012-2018(a)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018(a)
Turismoko gastua, guztira	3.799.935	3.803.144	3.921.201	4.119.211	4.305.184	4.473.543	4.651.303
Turismo hartzailea	1.875.625	1.898.298	1.988.273	2.097.648	2.238.422	2.370.390	2.531.497
Turismoaren beste osagai batzuk	1.924.310	1.904.846	1.932.928	2.021.563	2.066.762	2.103.153	2.119.809
Turismoko gastua, guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Turismo hartzailea	49,4	49,9	50,7	50,9	52,0	53,0	54,4
Turismoaren beste osagai batzuk	50,6	50,1	49,3	49,1	48,0	47,0	45,6
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoak							
Turismoko gastua, guztira	5,8	5,8	5,9	6,0	6,0	6,1	6,1
Turismo hartzailea	2,9	2,9	3,0	3,0	3,1	3,2	3,3
Turismoaren beste osagai batzuk	2,9	2,9	2,9	3,0	2,9	2,9	2,8

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea
Oinarria 2015
(a) Aurrerapena

Turismo-gastuaren beste osagai batzuk izeneko partidan jasotzen da Euskal AEko turista eta txangozaleek Erkidegoan bertan egiten duten gastua, Euskal AEko administrazio publikoek turismoari loturiko programetan eginikoa eta, azkenik, turismoaren adar berezietako enpresen kapital-eraketa gordina (inbertsioa).

Era berean, **turismo hartzailearen** gastuaren (Euskal AEn bizi ez diren pertsonen bidaiak eta txangoak) eta **turismo igorlearen** gastuaren (Euskal AEko biztanleek Erkidegotik kanpo egiten dituzten bidaiak eta txangoak) arteko aldeak eragindako defizita 2.389 milioi eurokoa izan zen 2018an; hau da, BPGren %3,1. Azken bost urteetan lehen aldiz, saldo turistikoaren defizita jaitsi egin da, 71,6 milioi eurotan murriztuz.

Euskal AEaren turismo-fluxuen saldoa

Gastu turistikoak gora egin du hiru lurraldeetan 2018an

Gipuzkoak %4,4ko igoera izan du gastu turistikoan, batezbestekoa baino 0,4 puntu handiagoa; Bizkaian hazkundea %4,1ekoa izan da, eta Araban %2,4koa.

Lurraldeen arabera, Bizkaiko gastu turistikoa guztizkoaren %44,9 izan zen 2018an, Gipuzkoan %41,5 eta, azkenik, Araban %13,6.

Turismoaren ekarpena euskal ekonomiara, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. Balio absolutua eta portzentajea BPGaren gainean (m.p.). Uneko prezioak . 2012-2018(a)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018(a)
TURISMOKO GASTUA							
Euskal AE	3.799.935	3.803.144	3.921.201	4.119.211	4.305.184	4.473.543	4.651.306
Araba/Álava	571.949	551.456	563.089	579.464	596.885	615.511	630.337
Bizkaia	1.661.834	1.680.990	1.724.166	1.823.481	1.905.175	2.008.800	2.090.741
Gipuzkoa	1.566.152	1.570.698	1.633.946	1.716.266	1.803.124	1.849.232	1.930.228
EHUNekoak							
Euskal AE	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Araba/Álava	15,1	14,5	14,3	14,1	13,9	13,8	13,6
Bizkaia	43,7	44,2	44,0	44,2	44,2	44,9	44,9
Gipuzkoa	41,2	41,3	41,7	41,7	41,9	41,3	41,5
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa							
Euskal AE	5,8	5,8	5,9	6,0	6,0	6,1	6,1
Araba/Álava	5,3	5,2	5,2	5,2	5,2	5,2	5,1
Bizkaia	5,0	5,1	5,1	5,3	5,3	5,4	5,4
Gipuzkoa	7,2	7,3	7,4	7,6	7,7	7,6	7,6

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

2015 Oinarria

(a) Aurrerapena

Gipuzkoa izan da berriz ere Lurraldearen zeinetan turismoak ekonomiaren gainean trakzio-eragin handiena duen, BPGren %7,6, portzentaje bat aurreko urtearen aldean berdin mantentzen dena. Bizkaia ere eutsi egin dio gastu turistikoak BPGren gainean duen pisuari 2017arekin alderatuta, %5,4. Bestalde, Araba hamarren bat jaitsi da, BPGren %5,1etan kokatuz.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62